



990/2017 EBAZPENA, UZTAILAREN 10EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, LANGILEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO ETA BIRZIKLAPEN PROFESIONALERAKO IKASKETAK EGITEKO LAGUNTZA PROGRAMARAKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO DEIALDIA, 2017KO EKITALDIARI DAGOKIONA, EZARTZEN DUENA

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen V. tituluko 31. artikuluan honako hau ezartzen da: *«etenik gabe sustatuko dira osasun-arloko profesional sanitarioen eta ez-sanitarioen eta gestio eta administrazio sanitarioetako profesionalen prestakuntza, birziklapena eta hobekuntza, diziplinarteko perspektiba batetik».*

Era berean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 3.d) artikulua Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko helburuen artean honako hau jasotzen du: *«langile sanitario eta ez-sanitarioek behar dituzten ezagupen espezializatuen prestakuntza eta eguneratzea bultzatuko du, bai berea duen osasunaren arloan, bai kudeaketa eta administrazio sanitarioari dagokionez ere».*

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren irailaren 26ko 1580/2011 Ebazpenaren hirugarren atalak, zeinak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren prestakuntza-jarduerak planifikatzeko eta kudeatzeko irizpide orokorrak ezartzen dituen, honako hau nabarmentzen du Osakidetzan prestakuntzarekin lotu nahi diren helburuen artean: *«lanpostuari esleitutako erantzukizunak, funtzioak eta atazak aurrera eramateko beharrezkoak diren gaitasunak eguneratzea eta hobetzea eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko pertsonen birziklatze profesionala eta kualifikazioaren hobekuntza sustatzea».*

Hori dela eta, aipatutako legedian adierazitako helburuari erantzuteko xedearekin, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren jarduera-ildo nagusietako bat honako hau da: laguntza ekonomikoen programa bat ezartzea bere profesionalentzat, berorien trebakuntza eta gaikuntza profesionalean egindako ahalegina eta aurrera eramandako ekimenak aitortzeko eta laguntzeko asmoarekin, Osakidetzak lehenesten dituen arlo eta jardueretan; horiek guztiek osasun-zerbitzuen kalitatea hobetzea ekarriko baitute.

Laguntza programa horren finantzaketa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko aurrekontuen kargura egingo da, horretarako aurreikusitako partidaren bidez.

Azaldutako guztiagatik, indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenez baliaturik

EBAZTEN DUT:

1.- Xedea.

Ebazpen honen xedea honako hau da: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen etengabeko prestakuntzako eta birziklapen profesionaleko ikasketak egiteko laguntza ekonomikoen programaren banaketa-erregimena arautzea 2017. urterako eta aurreikusitako laguntzak izateko eskabideak aurkezteko deialdia egitea.

1.1.- Osasunaren arloan, 2016ko irailaren 1etik 2017eko abuztuaren 31ra artean, kudeaketa, administrazio eta bestelako alderdi klinikoetan, zentro edo erakunde nazionaletan,



etengabeko prestakuntzako eta birziklapen profesionaleko ikasketak amaitutakoan laguntzak ematea ekarriko du.

Ikasketen prestakuntza-planak ikasturte akademiko edo modulu bat baino gehiago baditu, ikasketa horiek azken ikasturtea bukatzarekin batera joko dira amaitutzat edota ikasketa-programan ezarritako azken proba amaitzean, ikasketak erabat amaitu direla egiaztatzen duen ziurtagiria eskuratzen denean.

Etengabeko prestakuntza-ikasketatzat eta birziklapen profesionaltzat hartuko dira honako ikasketa hauek: profesionalek beren lanpostuko erantzukizunak, funtzioak eta zereginak betetzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eguneratu eta hobetzeko diren ikasketak; baita beren kualifikazioa hobetzeko eta eboluzio zientifiko eta teknologikoak eta eskaerak eta beharrek –sozialek nahiz osasun-sistemarenak– eragindako aldaketetara egokitzen laguntzeko diren ikasketak ere.

1.2.- Laguntza Programatik kanpo geratzen dira:

Honako helburuok dituzten prestakuntza-jarduerak:

- Gradu titulazio bat (ofiziala edo propioa) edo haren baliokide bat, doktoretza bat edota espezialitate kliniko bat, lortzea. Pertsonal egoiliarren prestakuntza-programan sartutako prestakuntza joko da espezialitate klinikoko titulazioa lortzeko prestakuntza-jardueratzat.
- Egoiliar izateko (BAME, BAFE, BAPE, BAEE, eta abar) sarbide-proba baten –edo antzeko baten– prestakuntza, edo lan eskaintza publiko batena.
- Edozein hizkuntzaren ikasketa.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak diruz lagundutako prestakuntza-zikloetan sartzen diren prestakuntza-jarduerak.

Bilkura zientifikoetan parte hartzea, hau da, kongresu, sinposium, jardunaldi, mintegi eta antzeko jardueretan parte hartzea.

2.- Laguntzen esparru pertsonala.

Laguntza hauetara heltzeko eskubidea izango dute Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langile guztiek, baldin eta zerbitzu aktiboan badaude deialdi-ebazpen hau argitaratzen den egunean.

Barruko langile egoiliarrek ere –BAME, BAFE, BAPE, BAEE, eta abar– jaso ditzakete laguntza hauek, betiere etengabeko prestakuntzarako jarduerak eta birziklapen profesionala egiteko laguntzak eskatzen badira (erreferentzia: 1.1 eta 1.2 puntuak).

3.- Laguntza Programaren zenbatekoa.

Etengabeko prestakuntza-ikasketetarako eta birziklapen profesionalerako laguntza-programaren zenbatekoa laurogeita hamar mila eurokoa da (90.000,00 €).

Deialdiaren ebazpenean soberakin bat egonez gero Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko prestakuntza-planetan aurreikusitako beste prestakuntza-jarduera batzuk diruz laguntzeko erabili ahal izango da.

4.- Laguntzaren diru-hornidura. Diruz lagunduko diren gastuak.

Laguntzaren diru-hornidura indibiduala, prestakuntza-jardueraren matrikula gastuak estaltzera mugatuko dena, gehienez ere mila eurokoa (1.000 €) izango da.

Salbuespenez, gehieneko muga handitu ahalko da, laguntza programaren zenbatekoan nahikoa soberakin gelditzen bada.

Laguntzaren zenbateko indibiduala zehazteko, onartutako eskabideen artean, laguntza programaren zenbatekoaren banaketa proportzionala egingo da, eskatutako kopuruaren arabera, 4. atalean ezarritako mugarekin eta deialdi honetan finkatutako baremoarekin bat datorren puntuazioaren arabera.

5.- Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honek aitortzen dituen laguntzak bateragarriak izango dira aipatutako prestakuntza-jarduerak xede dituzten (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzutik –Zuzendaritza Nagusia edo bere zerbitzu-erakundeak– eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saitetik kanpokoak) beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoak jasotzearekin, betiere gain-finantzaketarik sorrarazten ez bada.

Emandako diru-laguntza ezingo da inolaz ere onuradunak egindako prestakuntza-jarduerako matrikularen zenbatekoa baino gehiago izan, bera bakarrik edota bestelako erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandakoak kontuan hartuta.

Gain-finantzaketa gertatzen baldin bada, emandako diru-laguntza dagokion gehieneko kopururaino murriztuko da.

Araubide honen barruan laguntza eskabideak aurkezten dituzten interesdunek agiri bitartez justifikatu beharko dituzte beste erakunde batzuetatik jasotako edo haiei eskatutako laguntzaren izaera eta zenbatekoa, eta, laguntza eskabidearekin eta gainerako nahitaezko dokumentazioarekin batera, dagokion laguntza eskabidea eman izanaren ebazpenaren kopia erantsi beharko dituzte, 6. oinarrian aurreikusitako moduan eta epean guztiak aurkezteko.

Eskabidea aurkeztutako dataren ostean, berorretan islatutako datuetan bateragarritasun araubidean eragina duen edonolako aldaketaren bat sortuko balitz, eskatzaileak berorren berri eman beharko du, gertatu bezain laster, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Dibisioko Zuzendariari zuzendutako idatzi batean.

Jakinarazpen horren kopia, sinatuta eta erregistratuta, Prestakuntza@osakidetza.eus helbide elektronikora bidali beharko da, asuntoan honako hau adieraziz: «*Prestakuntzarako laguntzak-Bateragarritasun araubidea*».

6.- Eskabideak egitea, nahitaezko dokumentuak, aurkezpen epea.

6.1.- Pertsona bakoitzak prestakuntza-jarduera baterako baino ezin izango du dirulaguntza eskatu. Prestakuntza-jarduera amaierako egiaztagiriaren arabera identifikatuko da.

Puntu hori betetzen ez bada, atzera botako dira aurkeztutako eskabide guztiak.

6.2.- Interesdunek ondorengo helbide honetan lor daitekeen eredu normalizatuan aurkeztuko dute eskabidea: www.osakidetza.eus (edo www.osakidetza.eus/sites/Intranet erakundetik kanpo sartuz gero) ibilbide hau jarraituz: Profesionalak / Prestakuntza / Prestakuntzarako laguntzak / Laguntza programa etengabeko prestakuntzarako eta birziklapen profesionalerako ikasketak egiteko.

Eskabidea Intranet korporatiboan horretarako gaitutako bitarteko telematikoen bidez bidali beharko da.

Behin telematikoki igorri denean, eskatzaileak bere helbide elektronikoko korporatibo pertsonalean jasotzen duen kopia inprimatu beharko du, zeina behar bezala sinatu eta erregistratu beharko baita.

Inskripzio horrek balioa izateko, sinatu eta deialdian ezarritako epean aurkeztu beharko da, beharrezkoa den gainerako dokumentazio guztiarekin, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezartzen diren modu eta lekuetan ere aurkeztu ahal izango da.

Posta-bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak gutun-azal irekiaren barruan sartu beharko dira, lehen orriko goiburuan jasotze-data eta abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuak –posta-zerbitzuak emateari buruzkoa– ezartzen dituen gainerako zehaztapenak jartzeko modua izan dadin.

6.3.- Eskabidea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Dibisioko Zuzendariari zuzendu eta bidaliko zaio (Prestakuntzako Zerbitzu Korporatiboa, Araba kalea 45, 01006, Gasteiz).

6.4.- Nahitaezko dokumentazioa.

Eskabide inprimakia, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Intranet korporatiboan eskuragarri dagoen ereduaren arabera, eskatzaileak sinatuta.

Dagokion ikastegiko organo eskudunak jaulkitako jatorrizko ziurtagiria, zigilatuta eta sinatuta, edo haren fotokopia konpultsatua, egiaztatuko duena:

- 1) Eskatzaileak laguntza eskatu duen ikasketen amaiera data.
- 2) Esandako ikasketa horien matrikularen zenbatekoa, eskatzaileak ordaindu duena.

Ziurtagiririk ezean, era berean onartuko dira:

Laguntza eskatutako ikasketen tituluaren edo diplomaren fotokopia konpultsatua, beste honekin batera:

Matrikula ordaindu izanaren jatorrizko egiaztatzea, ondorengo edozein modalitatetan:

- a. Eskatzaileak ikastegiari egindako transferentziaren egiaztatzea, banku-sukurtsalaren jatorrizko zigiluarekin balioztatua.
- b. Ikastegiko organo eskudunak zigilatu eta sinatutako jatorrizko faktura, non jasota egon beharko den ordainduta dagoela.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Intranet korporatiboan eskura dagoen eredu normalizatua erabilia egindako jatorrizko txostena, behar bezala beteta eta laguntza eskatu duen profesionalaren Arloko Zuzendariak zigilatuta eta sinatuta. Txostenari beste hauek ere erantsi beharko zaizkio:

- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Intranet korporatiboan eskura dagoen eredu normalizatua erabilia egindako memoria. Bertan, eskatzaileak laguntza eskatzen duen prestakuntza-jardueraren helburuak eta edukiak azaldu beharko ditu, eta zehaztu beharko du prestakuntza horrek bere lanpostuari lotutako zein hobekuntza-arlotan eragingo duen.
- Ikastegiaren dokumentazio ofiziala ikasketa-programari buruz.

6.4 oinarrian xedatutakoa interpretatzearen eta aplikatzearen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira Arloko Zuzendaritzat:

- Eskatzailearen erakundeko Pertsonaleko zuzendaria, Zuzendari medikoa, Erizaintzako zuzendaria; edo Zuzendari Gerentea, egitura hori ez duten zerbitzu-erakundeen kasuan.
- Laguntza eskatzen duen profesionalari dagokion Zuzendariordetzako Titularra, Zuzendaritza Nagusian lan egiten badu edo Giza Baliabideetako Dibisioko Zuzendaria, Zuzendariordetzarik ez duten Zuzendaritza Nagusiko profesionalen kasurako.

6.5.- Eskabideak eta gainerako nahitaezko dokumentazioa aurkezteko epea ebazpen hau Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Intranet korporatiboan argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, ondorengo helbidean: www.osakidetza.eus (edo www.osakidetza.eus/sites/Intranet erakundetik kanpo sartuz gero), ibilbide hau jarraituz: Profesionalak / Prestakuntza / Prestakuntzarako laguntzak / Laguntza programa etengabeko prestakuntzarako eta birziklapen profesionalerako ikasketak egiteko. Epea 2017ko irailaren 30ean amaituko da.

6.6.- Deialdiaren eskakizunen bat beteko ez balitz edo datuak ezkutatu, aurkeztutako dokumentazioa faltsua balitz edo eskatutakoaren utzikierarik balego, eskatutako laguntza ez da emango edo emandakoa galduko da. Azkeneko kasuan, bidegabe jasotako kopuruak itzuliko dira, sor litzaketen erantzukizun penal, zibil eta administraziokoei kalterik egin gabe.

7.- Eskabideen zerrenda.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaitu denean, www.osakidetza.eus (edo www.osakidetza.eus/sites/Intranet erakundetik kanpo sartuz gero) helbidean argitaratuko dira dokumentazioa osorik duten eskabideen zerrenda, zuzenketaren bat behar duten

eskabideena, eta deialdiaren eskakizunak betetzen ez dituzten edo 9. oinarrian ezarritakoaren arabera gutxienez 5 puntuko balorazioa lortu ez dutenen zerrenda.

Interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, erreklamazioak aurkezteko eta eskabidea zuzentzeko.

Zuzentzen ez badu, interesdunak eskabideari uko egiten diola ulertuko da.

Interesdunei gertatutako argitalpenen abisu eman ahalko zaie, norberaren helbide elektronikoko korporatibora igorritako mezuen bidez. Abisu horiek ez dute, ezein kasutan, egindako jakinarazpenaren ondorioz izango.

8.- Eskabideak baloratzea.

8.1.- Laguntza eskatzen duten profesionalen Arloko Zuzendariak eskabideak baloratu dituzte, Ebazpenaren 6. oinarrian aurreikusitako txostenak igorritik, aurreikusitako balorazio- eta haztapan-irizpideak aplikatuz.

Arloko Zuzendariak beharrezkoak deritzoten aholkularitzak eska ahalko dituzte, eskabideak behar bezala baloratzeko.

8.2.- Egindako balorazioa Giza Baliabideak Kudeatzeko, Antolatzeko eta Garatzeko Zuzendariordearen balorazio-aktan islatuko da. Horrek laguntzen guztizkoa eta onartutako eskabideen eta onartu ez direnen –horretarako arrazoiak barne– zerrendak jasoko ditu. Azkenik, akta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Dibisioko Zuzendariak jasoko du, ebazpen proposamen gisa.

9.- Balorazio-, haztapan- eta hautaketa-irizpideak.

9.1.- Ondoren zehaztuta datozen irizpide eta haztapan hauek aintzakotzat hartuta egin beharko da balorazio-lan hori:

a) Prestakuntza-jardueraren eragina, profesionalak eskabidea egin duen datan betetzen duen lanpostuari dagokionez. Gehienez 6 puntu.

b) Ikasketek eskatzailearen zerbitzu-erakundeko plan eta programa espezifikoekin duten lotura. Gehienez 4 puntu.

Irizpide hauek ikastegiak ikasketa-programari buruz dituen memoriaren eta dokumentazio ofizialaren arabera baloratu dira.

Gehieneko puntuazioa, guztira, 10 puntukoa izango da.

9.2.- Aurreko baremoarekin bat etorritik, a) + b) balorazioa gutxienez 5 puntu osatzera iristen ez diren laguntza-eskabideak ez dira onartuko.

10.- Ebazpena.

10.1.- Ebazpen honetan aurreikusitako laguntzak ematea edo ukatzea Giza Baliabideetako Dibisioko Zuzendariaren ebazpen baten bidez egingo da, Giza Baliabideak Kudeatzeko, Antolatze eta Garatzeko Zuzendariordetzak proposatuta.

10.2.- Ebazpenak, batetik, onartutakoen zerrenda argitaratuko du, emandako hornidura ekonomikoa adierazita; eta, bestetik, ukatutako eskabideen zerrenda, ukatzeko arrazoia azalduz.

10.3.- Ebazpen hori, gehienez, sei hilabeteko epean egin eta jakinarazi beharko da, deialdiaren ebazpena indarrean hasten denetik zenbatzen hasita. Adierazitako epe horretan ebazpena jakinarazten ez bada, eskabideak ez direla onartu ulertuko da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Horrek ez dio ezertan eragozten Administrazioak berariaz ebazteko duen betebeharrari.

10.4.- Ebazpena ondorengo helbide honetan argitaratzearen bitartez jakinaraziko da: www.osakidetza.eus (edo www.osakidetza.eus/sites/Intranet erakundetik kanpo sartuz gero), ibilbide hau jarraituz: Profesionalak / Prestakuntza / Prestakuntzarako laguntzak / Laguntza programa etengabeko prestakuntzarako eta birziklapen profesionalerako ikasketak egiteko.

10.5.- Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko diote Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau web-gunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11.- Esleitutako laguntzak ordaintzea.

Esleitutako laguntza ekonomikoak onuradunaren soldatan ordainduko dira.

12.- Izaera pertsonaleko datuen babesa.

Programa honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko aurkeztutako eskabideak kudeatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da eskatzaileen datu pertsonalak jasotzea, prozesatzea eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren esku jartzea.

Deialdi honetan parte hartuko dutenen izaera pertsonaleko datuak "Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Kudeaketa Integratuko" fitxategi automatizatuan sartuko dira. Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen aurreikuspenetara egokitu beharko da. Fitxategi horren arduraduna Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Dibisioa da, eta sartzeko, zuzentzeko edo ezetzatzeko eskubideak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Dibisioko Zuzendariaren aurrean erabili ahalko dira (Araba kalea 45, 01006-Vitoria-Gasteiz).

Deialdi honetan parte hartzen duten profesionalak Ebazpen honen xedea betetzeko aurrera eramandako datu pertsonalen prozesamendua onartzen dute.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honen aurka, zeinak ez baitu administrazio bidea agortzen, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiokete Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari – Araba Kalea 45, PK 01006, Vitoria-Gasteiz–, hilabeteko epean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Intranet korporatiboan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek ondorioak izango ditu Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Intranet korporatiboan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, helbide hauetan www.osakidetza.eus (edo www.osakidetza.eus/sites/Intranet).

Gasteizen, 2017ko uztailaren 10an.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia
MARIA JESUS GEMMA MUGICA ANDUAGA

